


BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
72 zenb.
2020ko azaroa



EUSKAL JAIA:
*Pandemia garaian ere,
herri giroari eutsiz*



EUSKARAREN PILULA

PUNTUAK ZENBAKietan, URTEETan...

OHIKO AKATSAK

(* Asteriskoa duten esaldiak gaizki daude)


1. * **1.991.** urtean sortu zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.
2. * Arkitektoak esan du **12000** euro kostatuko zaigula etxea konpontzea.
3. * Maritxu Mendieta Leturia, **78.856.916R** NAN zenbakiduna, ez zegoen bere etxean jakinarazpena ematera joan garenean.
4. * **20.270** da Anoetako posta kodea.
5. * Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: **943.708. 233.**

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Urteak milako punturik gabe idazten dira.

1991. urtean sortu zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (urtearen bukaeran jartzen den puntuak "-garren" esan nahi du)

1991n sortu zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea



2. Milatik gorako zenbaki osoetan, digituak hirunaka multzokatuta eta puntuz bereizita idazten dira; eta, zatiki hamartarrak (dezimalak), komaz bereizita.

Arkitektoak esan du **12.000** euro kostatuko zaigula etxea konpontzea

Arkitektoak esan du **12.162,75** euro kostatuko zaigula etxea konpontzea

3. NAN zenbakietan ez da punturik jartzen.
Maritxu Mendieta Leturia, **78856916R** NAN zenbakiduna...
4. Posta kodeetan ere ez da punturik jartzen.
20270 da Anoetako posta kodea
5. Telefono zenbakiak ere puntu gabe idazten dira, hirunaka.
Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: **943 708 233**

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (urriaren 27)	1.015	1.086	2.101
JAIOITZAK (otsailaren 18tik urriaren 27ra)	Hegoa, Lea, Nora, Matixa, Haizea, Hegoi, Maren	Oier, Ares, Mattin, Ekhi, Urki, Xanet, Lukas, Etxahun, Bruno, Kai, Ekhi, Iker, Mohamed Mousa	20
HERIOTZAK (otsailaren 18tik urriaren 27ra)	M ^a Angeles, Juana M ^a , Lorenza, M ^a Dolores, M ^a Izaskun, Josefa	Francisco, Angel, Miguel M., Luis, Antolin, Juan M ^a	12



ESKERRIK ASKO

Aurtengo urte berezi honetan hamahiru urte egin ditu Euskal Jaiak. Festa eguna izan ohi da Euskal Jaia, baina aurtengoan beste era batera ospatzea egokitu zaigu. Egoera berezi honetan ere, pozik gaude egitarauak izan duen harrerarekin.

Dakizuen bezala, Euskal Jaiak sorreratik helburu izan ditu euskal kultura eta tokiko elikadura aldarrikatzea eta indartzea. Hain juxtu ere, Covid-19ak eragin nabarmena izan du bi sektore hauetan. Izan ere, kultur ekitaldi gehienak geratu dira bertan behera eta kulturagintzako sortzaileen-tzat ez dira garai errazak. Bestalde, konfinamendu garaian azokak debekatu izanak ere, nabarmen eragin zien zuzeneko salmentan aritzen direnei. Orain berriz, festa giroko azokarik gehienak bertan behera geratzen ari direnez, ekoizle eta artisau askok kolokan dituzte beraien proiektuak.

Horregatik erabaki genuen Euskal Jaiaren egitarauarekin aurrera egitea eta azokak eta kultura seguruak direla aldarrikatzea eta praktikaren bidez demostratzea. Ez da erraza garai hauetan antolaketan aritzea, protokolo guztiak aintzat hartzea eta hauek betetzeko neurri guztiak kontuan izatea, baina pozik gaude egindako lan guztiak merezi izan duelako eta anoetarrok ederki erantzun dugulako. Egitaraua plazaratu genuenean

esan genuen, pandemia agertu zenetik elkar zaintzen ikasi dugula eta bagenuela konfiantza herri-tarrek ondokoarekin errespetuz jokatu zutela eta esandako neurriak beteko zituztela. Ikusi dugu ekitaldiz ekitaldi hala izan dela eta horregatik eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Asteburu euritsua tokatu zitzaigun eta ekitaldi guztiak barruan egin behar izan genituen, baina plaza bihurtu genituen kiroldegia, auditorioa eta frontoia. Polita izan zen Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin umeak dantzan eta irriz sentitzea, Raitxen musikarekin auditorioan sortu zen giro goxoaz disfrutatzea, bertso saioak eta Arineketan emanaldiek izan zuten harrera jendetsua ikustea eta azokara jendea erosketak egiteko gogoz gerturatu zela ohartzea. Benetan, eskerrik asko kultura eta azokak babesteagatik eta Euskal Jai batzordeak egitarauarekin aurrera egin izana baloratzeagatik. Beste urte betez, eskerrak eman behar dizkizuegu auzolanaren bidez egitaraua aurrera ateratzeko auzolaneari aritu zareten herritar guztiei. Eskerrik asko denei!

**KULTURA ETA AZOKAK
SEGUURAK DIRA!**



Kutsatzea ez da eskubidea, ingurune garbian bizitzea ordea bai. Zaindu zure bizilagunak eta Lurra, **BIRZIKLATU!**

INGURUMENA



ANOETAKO
UDALA

Dakizuen bezala, COVID19ak eragindako alarma egoera errefusa edukiontzietan biltzen hasi ginen. Deialdi berezia egin genuen hondakinak behar bezala sailkatzen jarraitzeko eta, batez ere, lurrean hondakinak ez uzteko eskatuz. Behin alarma egoera amaituta, ikusi zen egoera berri honek beste aukera bat eskaintzen zigula lurrean agertzen diren zabor poltsek sortzen dituzten elkarbizitza, garbitasun eta osasun arazoak bideratzeko. Eta horregatik, Anoetako Udala osatzen dugun EHBildu eta EAJ alderdiek honakoa adostu genuen uztailan:

- Errefusa edukiontzien bidez biltzea beste sei hilabetez, 2020ko abendura arte.
- Sentsibilizazio kanpaineekin jarraitzea eta edukiontziei eta tokiz kanpo agertzen diren zabor-poltsei jarraipen zorrotza egitea.
- Sei hilabete hauetan gaikako bilketako datuak okertzen badira (%74ko batz bestetik jaisten bagara), berriz ere, errefusa atez ate biltzen hasiko gara.

HONAKOAK DIRA 2020. URTEKO DATUAK:

HONDAKINAK	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Errefusa	12.870	11.190	13.689	17.985	17.524	15.400	14.125	13.911
Organikoa	11.700	11.360	10.210	9.590	9.190	9.324	12.460	12.639
Kartoi komertziala	2.498	2.549	1.938	2.543	1.494	1.96	1.428	1.106
Beira	7.713	2.966	7.258	3.687	5.080	6.510	7.214	3.553
Ontzi arina	7.222	6.499	6.595	5.641	6.358	6.594	5.622	6.132
Papera	7.102	5.630	7.749	5.794	4.605	5.135	4.513	4.164
Arropa	390	163	488	1.037	952	902	732	726
Landare olioia	102		130	244		171		71
Guztira sortutakoa	49.597	40.357	48.057	46.520	45.203	45.332	46.094	42.302
Gaikako bilketa	%74,05	%72,27	%71,51	%61,23	%61,23	%66,03	%69,36	%67,11

Etxean COVID 19agatik positiborik egonez gero, hondakinak ez ditugu sailkatuko eta errefusera botako ditugu. Garaia iristean, Osakidetza azalduko digu hondakinak ateratzeko prozedura.

Gainerako etxeetan behar bezala sailkatuko ditugu. Beti bezain garrantzitsua izaten jarraitzen duelako eta ezin dugulako ahaztu gure osasuna erabat lotuta dagoela Lurraren osasunarekin. Horregatik, berriro diogu: guztiz debekatuta dago hondakinak lurrean uztea.

DEBEKATUTA HONDAKINAK LURREAN EDOTOKIZ KANPO UZTEA



90,10€ eta eta 45.000€ arteko isunak Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan hondakinak bildu eta tratatzeko ordenantzaren arabera.

GIZARTE ZERBITZUAK

ADINKIDE
ANOETAADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO
LAGUNTASUN ETA ZAINTZARAKO
AUZO SAREA ERATZERA GOAZ

Lagunak egitea eta harreman sozialak sustatzea dugu helburu. Gurekin parte hartuz gero, bakardadearen ondorioei aurre egiteko balio izango dizu, jakin badakigu egoera edozein adinekin gertatu daitekeelako.



Egunerokotasuneko ekintza sinple bat eginda auzo zaintza sarea uztartzen lagunduko zenuke eta denen mesederako izango zen.



Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Anoetako Udaleko Gizarte Zerbitzuekin:
943569213, astelehenetik ostiralera,
09:30etik 13:00era.



Goazen pintxo-potera elkarrekin!

Oporretan nagoen bitartean landareak ureztatuko zenizkidake?

Zure bizipenak, ikasbideak eta zaletasunak auzokoekin partekatu nahi dituzu?

Enkargu bat egitera lagunduko didazu?

Ezberdinak izan arren, asko daukagu partekatzeko elkarren artean.



EUSKARA

Euskara ikasteko hiru talde sortu dira Anoetan eta Iruran 2020-2021 ikasturtean

Anoetako Udala eta Irurako Udala, eskualdeko beste hainbat eragilerekin batera, elkarlanean aritzen gara helduen euskalduntzea sustatzeko asmoz. Herrian bertan euskara ikasteko aukera izatea ezinbestekotzat jotzen dugu bi udalok, eta horretan saiatzen gara.

Ikasturte honetan hiru talde sortu ditugu, bi Anoetan (bata hastapeneko maila duena eta bestea aurreratuagoa) eta beste bat Iruran (hastapeneko maila). Andoaingo AEK Euskaltegiko Aritz Peñagarikano eta Maitane Urkola arituko dira irakasle lanetan.



ANOETAN:

Hastapeneko taldea:

- EGUNAK: asteazken eta ostiraletan.
- ORDUTEGIA: 09:30etik 11:30era.
- TOKIA: udaletxeko beheko solairuan (liburutegi zaharrean)

Talde aurreratuagoa:

- EGUNAK: astelehen eta asteazkenetan.
- ORDUTEGIA: 15:00etatik 17:30era.
- TOKIA: udaletxeko beheko solairuan (liburutegi zaharrean)

IRURAN:

- EGUNAK: astearte eta ostegunetan.
- ORDUTEGIA: 16:00etatik 18:30era.
- TOKIA: Herri Eskolako ikasketa gelan.



Bi udalok dirulaguntzak ematen ditugu euskara ikasteko. Euskaltegiren batean matrikulatu bazara, zure udaletxeko euskara zerbitzura jo dezakezu laguntza hauek eskatzera.



Mintzalaguna elkarrekin! Izen-ematea irekita

Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera; bai euskara praktikatu nahi dutenak eta baita euskara praktikatu nahi duten horiei laguntzeko prest daudenak ere.

Zer da Mintzalaguna

Euskaraz hitz egiten duten pertsonak euskaraz egin nahi dutenekin elkartzea asteen behin, ordu betez, paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, euskaraz biziitzeko.

Bi modutara parte har daiteke, euskara praktikatzuz (**bidelaria**) eta euskara praktikatzen lagunduz (**bidelaguna**).

Izena nola eman

Izen ematea doakoa da. Mintzalagunean parte hartu nahi dutenak udaletxera jo behar dute izena ematera: euskara zerbitzua, euskara@anoeta.eus, 943651200/4



EKINTZAK

IPUIN-KONTAKETAK

Urriaren 24ean Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da. Ipuin kontaketa saioa 21ean izan genuen Miru kontalariarekin.

ELKAR ZAINDUZ

Zentzuzko mantenduz elkar zainduko dugu. Gogoratu: garbiketa, maskara eta distantzia mantendu behar direla.

ITZULKETA BUZOIA

Kulturguneko sarreran maileguen itzulketa buzoia duzue liburutegia itxita dagoenean erabiltzeko.

NOBEDADEAK

Helduen sailean:

- Dendaostekoak / Uxue Alberdi
- Ene baitan bizi da / Maddi Ane Txoperena
- Haize-lekuak/ Amaia Telleria

- El infinito en un junco / Irene Vallejo
- Las tinieblas y el alba / Ken Follet
- Cómo maté a mi padre / Sara Jaramillo Klinkert

informazio gehiago:

<https://www.pinterest.es/anoetaliburuteg/2020-helduak/>





EKINTZAK

ipuin-kontaketak...

Lehenengo hiruhileko ipuin kontaketa saiora hurbildu ziren gaztetxoak martxoaren 5ean Ana Apikarekin gozatzeko.

Gero, etxealdia eta udara arte ezin izan genuen ezer antolatu. Eta Maite Franko gurekin egon zen uztailen guztiok elkar zainduz. Ama edo aitaren laguntzarekin egon ziren 4 eta 5 urteko umeak asko disfrutatu zuten.

Urrian, Liburutegien Eguna ospatzeko eta umeen autoestimua modu entretenigarri batean lantzeko, Miru kontalaria izan zen gurekin.

Honetaz gain, liburua gai duten eleberrak eta ipuinak erakusgarri egon ziren liburutegian.

MAILEGATUENAK

Helduak

- Miñan / Amets Arzallus eta Ibrahima Balde
- Reina roja / Juan Gómez-Jurado
- Basa / Miren Amuriza
- Aitaren etxea / Karmele Jaio
- Loba negra / Juan Gómez-Jurado
- Todo esto te daré / Dolores Redondo
- Érase una vez la taberna de Swan

Haur-Gazte

- Inazuma Eleven
- Nork agintzen du koadrilan / Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- Ernest & Célestine (DVDa)



NOBEDADEAK

Haur-Gazteen sailean:

- Super patata (komikiak) / Artur Laperla
- 1, 2, 3, mugitu! : eskeletoa / Françoise Laurent
- Ezinezko lapurretaren misterioa / Roberto Santiago
- *****
- Tú estás aquí / Aleksandra Mizielinska
- Timo : el aventurero / Yohan Sacré
- El día que Otto la lía / Jay Lynch

informazio gehiago:

<https://www.pinterest.es/anoetaliburuteg/2020-haur-eta-gazte-saila/>



PAREKIDETASUNA



ETENALDI BATEN OSTEAN, INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOARI BERRIRO HELDUZ

Indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa diseinatzeko jarraitzen dugu. Etenaldi bat egin behar izan dugu derrigorrez Covid dela eta, baina irailetik aurrera berriz ari gara buru belarri gaiarekin. Pena izan da Ertzaintzako eta Anoetako zein Tolosako osasun zentroetako ordezkariak ezin parte hartzea hasieran aurreikusi genuen moduan, baina egungo osasun egoera oztopo handia izaten ari da. **Hala ere, dena ondo bidean, urtea amaitu aurretik egingo dugu protokoloaren aurkezpen publikoa.**



"BIRRITAN BORTXATUA" ANTZEZLANA

Indarkeria sexista ardatz duen "Birritan bortxatua" antzezlanak ikusgai egongo da **azaroaren 20an auditorioan, 19:30ean.**

Sinopsia hau da:

"Nagore naiz, 44 urte ditut, eta oraindik ere ezin dut sinetsi niri horrelakorik gertatu izana.

Duela hiru urte, herriko jaietan, bortxatu egin ninduten. Ezaguna nuen mutil batek bortxatu ninduen.

Bere izena esatea ere kosta egiten zait. Bai... barkatu... Mikel da bere izena".

Nagorek, beldurak gaituz, salaketa jartzea erabakitzen du. Orduan hasten da Nagorearen bigarren amets gaiztoa. Epaietan zehar bizi eta sufritutakoak kontatuko dizkigu antzezlan honek, baita gizartearen partetik jasotako epaiak ere.

Fikziozko antzezlan honek, errealitatean gertatutako hainbat bortxaketetan du oinarria. Interneten denon eskura eta ikusgai dauden epaiketa ezberdinetako testigantzetatik aterata dute informazioa egileek.

Sarrerak salgai daude liburutegian, agortu arte. Prezioa: 3 €.

AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Urtero bezala, azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo dugu indarkeria sexista salatzeko. Gizartean errotuta dagoen gaitz honen aurka gure ahotsak altxatzea ezinbestekoa da, eta animatzen ditugu herritar guztiak elkarretaratzean parte hartzera.

Hitzordua 19:00etan da, plazan.



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ



IRAKURKETA FEMINISTA TAILERRA URTARRILETIK AURRERA

Deialdia egin ondoren, 12 lagunek eman dute izena irakurketa feminista tailerrean, eta urtarriletik aurrera jarriko da martxan, Kattalin Minerrek dinamizatuta.

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urteetan argitaratutako lanak irakurriko dituzte, eta gai hauek landuko dituzte: emakumeek egiten dituzten zaintza lanak, familia, emakumeak eta esfera publikoa, arrakasta, emakumeen sexualitatea, amatasuna, eraso sexistak eta sexualak etab.

Saioak liburutegian izango dira, hilean behin.

GAZTELEKUA

Gaztelekua martxan dago!
Zer da Gaztelekua? Hiru nerabe
hauek "gaztelekua" hitza entzun
eta beraien irudimena erabiliz
honako artelanak sortu dituzte.

**Eta zure ustez, zer da
Gaztelekua?**



LABURRAK

IPUIN KONTAKETAK LIBURUTEGIAN

Urrian hasi gara ipuin kontaketen kanpainarekin liburutegian, eta azaroan eta abenduan beste saio batzuk antolatuko dira. Erne ibili! Orain, Co-vid dela eta, izena eman behar da liburutegian, parte hartzeko, aforoa bermatze aldera.



KIROLDEGIKO IKASTAROAK

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
RITMIKA	12	0
CROSS TRAINING	6	10
CYCLING	7	4
PILATES	23	0

BESTELAKOAK

- Aldundiak aurten egingo ditu asfaltatze-lanak Anoeta eta Tolosa bitartean, azaroan ziurrenik.
- Idazkari berria hasiko da laster lanean udaletxean. Azken hilabeteotan Irurako Udaleko idazkaria aritu izan da Anoetako Udaletxean %30eko dedikazioarekin, baina idazkari lanposturako hautaketa prozesua burutu ondoren, laster idazkari berria izango dugu.
- Ikastolako estalkia eraberritzeko obra eta plazako irisgarritasuna hobetzeko obra lizitazio prozesuan daude eta lanak urte bukaeran eta datorren urte hasiera artean hastera aurreikusten dugu.



EUSKARAK MEREZI DU

COVID-19ak mundu osoari eta bizitzako hainbat arlori eragin diela bistakoa da: osasunari, herritaren sozializazioari, ohiturei... eta, horien artean, baita hizkuntzari eta indartze- eta sendotze-bidean dugun euskarari ere. Goiz da oraindik, baina dagoeneko jabetu gara guretzat funtsezkoa den **euskararen erabilera eta transmisioa inoiz baino gehiago indarberritu behar ditugula**. Euskarak irabazitako eremuak galtzen ezin ditugula utzi, alegia.

Egoerak eragindako itxialdiak etxean jarri ditu herritarrak, gure kasuan, gurasoak eta ikasleak. Gure gizartean, euskararen normalizaziorako giltzarria den herriko ikastetxeak, Anoetako Herri Ikastolak, bere tokia eta erreferentzialtasuna galdu ditu. Familia batzuetan, bat-batean murriztu edo desagertu egin dira euskara hutseko harremanak, baita hori ahalbidetzeko esparruak ere. Dena den, zortekoak gara, aurreko ikasturtean ez bezala, oraingoan ikasleak gurekin daudela. Euskararen unibertsoan murgilduta daude berriz ere, eta horrek aukeraz baliatzeko indarra ematen digu.



Bere ibilbide luzean zehar, Anoetako Herri Ikastolak argi erakutsi du euskararen normalizazioan modu sendoa aurrerapausoak emateko apustua egin duela. Testuinguru horretan, asko dira Ikastolak hartutako konpromisoak, hala nola herriko euskara-mugimenduekin eta Tolosaldeko Galtzaundi Elkar-tearekin duen **elkarlana**. Horrez gain, guretzat bereziki garrantzitsua da duela urte batzuetatik Ikastolan martxan dugun **Euskara Elkartea**, DBHko ikasle boluntarioek osatua. Ikasleen kontzientzia piztea eta ekintzailetasuna bultzatzea funtsezko baloreak dira gurean, eta horretan dihardugu ikasturtez ikasturte.

Azken urteotan berrikuntza bat gehitu dugu zerrendan; izan ere, HUHEZIK eta Ikastolen Elkar-teak antolatutako **Eragiten programan** parte hartzen dugu. **Elkarrekintza erdigunean jarritz eta gure jardunaren gaineko gogoeta eginez, euskararen erabileran eta kalitatean eragiteko** beste urrats bat ematen ari gara. Badakigu bide onetik goazela eta egunerokotasunean hartzen ditugun konpromiso txiki horiek guztiek lorpen handiak ekarriko dizkigutela. Euskarak merezi du eta.

EUSKARA, BADATOR PLAZARA!

Anoetan Euskara Talde bat eratzearen ideia aspalditik dabil gutako askoren buru eta bihotzetan. Ideia hori egosten hasi ginenok sua piztu eta lapikoa sutan jarri genuen, baina denon artean zaindu beharko dugu sua itzal ez dadin.

Lapikoa herritar guztion osagaiekin bete eta hainbat zaporez osatutako salda bat egin nahi dugu, zapore askotako errezetak goxoagoak izaten baitira.

Horregatik, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, jendaurrean aurkeztuko dugu euskara taldea, arratsaldeko 19:00etan Anoetako plazan egingo dugun ekitaldian.

Txinparta piztu da, eta salda ere hasi da irakiten. Zu ere gurekin izatea nahi dugu, dagoeneko sortu den su hori itzal ez dadin. Lagunduko al diguzu sua bizirik mantentzen?

ANOETAKO EUSKARA TALDEA



**Anitz Dantza
Taldekideok
ilusio handiz ekin
diogu 2020-2021
ikasturteari**



Kaixo!

Lehenik eta behin, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu dantza-taldekidekoikasleei eta gurasoei, baita Anoetako Udalarari ere, 2019-2020 ikasturtea behar bezala amaitzeko erraztasunak jar-tzeagatik.

Anitz Dantza Taldekideok ilusio handiz ekin diogu 2020-2021 ikasturteari. Urriaren 5ean eman genion hasiera ikasturte berriari, eta mota guztietako dantzak irakatsi eta ikasteko irrikan gaude.

Aurten, 103 dantzarik eman dute izena, eta herriko 7 dantzari izango ditugu irakasle: Amaiur, Eider, Iraia, Irati, Itziar, June eta Leire. Dantza-ikastaroak Auditorioan, Kiroldegian eta Hozpeleko lokalean egingo dira, azken hori berrikuntza izanik.

Covid-19ari dagokionez, dantza-taldean bertan protokolo bat prestatu dugu, eta neurri bereziak hartu behar izanditugu guztion osasuna bermatzeko.

Besterik gabe, eta laster plazan dantzan elkar ikusiko dugulakoan... Zaindu.

ANITZ DANTZA TALDEA

Militantziari erasorik ez!

Covid-19ak eragindako pandemia dela eta, hilabete gogorrek bizitzen ari gara. Gure kasuan, agintariak jarritako neurriek zuzenean eragin nahi izan dute militantziarekin lotutako esparruetan. Ez dute pandemiari aurre egiteko egiturazko aldaketarik egin, ezta osasungintzako inbertsio handiagorik ere. Horren adibide dugu Tolosako Asunción Klinikako egoera. Aski da!



Pandemiaren ardura norbanakoen gain jarrita, militantziarako, adierazpen politikorako eta elkartzeko eskubidea kendu nahi digute. Azken hilabeteetan, Ertzaintzaren presentzia oso handia izan da gaztetxe inguruan. Asanbladako kideak identifikatu dituzte behin baino gehiagotan, izuaren eta kontrolaren doktrina ezarriz. Argi dago egoeraz baliatu nahi dutela, kontrol soziala areagotzeko eta herritarren arteko sareei mugak jartzeko. Hori are ikusgarriagoa izan da gazteen artean. Zenbatetan egin gaituzte egoeraren erantzule? Zenbat aldiz jo gaituzte ardura-gabetzat?

Pandemia honetan, etekin ekonomikoa bultzatzen ez duten jarduera guztiak eten nahi izan dituzte. Kulturaren sektoreari edota lehen sektoreari sekulako oztopoak jarri dizkiete aurrera egin ahal izateko. Nola da posible supermerkatu handiak ez ixtea, eta baratzeetara ez joan ahal izatea? Horren harira, Maite janaridendako langileek jasandako erasoak salatzen nahi dugu. Jaso dezatela Gazte Asanbladako kide guztion elkartasuna.

Gune autogestionatuak gero eta beharrezkoagoak dira, eta horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu Anoetako zein Euskal Herriko gaztetxe guztietan elkartzeko eskubidea izatea. Zentzu

horretan, azken hilabeteetan okupazioak jasan duen kriminalizazioa salatzen nahi dugu. Miseriara kondenatu nahi gaituen sistema honetan, okupazioa legitimoa izateaz gain, beharrezkoa dela uste dugu.

Azken hilabeteak zailak izan dira, eta datozenak ere ez dira errazak izango, baina ahal dugun neurrian, gure jardura aurrera eramango dugu, zalantzarik gabe. Horren erakusgarri dira uda honetan antolatu ditugun kultura-emanaldiak, edota gaztetxean dugun baratzea. Udan, lehen barazkiak jaso ditugu, eta lanean jarraitzeko gogotsu gaude. Bide batez, eskerrik asko proiektu honetan laguntzen gaituzuenoi.

Azken hilabeteetan hausnarketa-prozesu bat egin dugu gaztetxean, eta behar berriak identifikatu ditugu. Horiei erantzuteko, hurrengo hilabeteetan zenbait aldaketa egingo ditugu gaztetxean. Eskerrak eman nahi dizkiogu Anoetako Udalari, laguntzeagatik eta azken hilabeteetan egoerara moldatzeko eskainitako prestutasunagatik. Lanerako gogoz gaude eta datozen hilabeteetan proiektu berriak jarriko ditugu martxan. Izango duzue gure berri!

EKITALDIA ANOETAN

HERRI TXIKI

INFERNU HANDI

- BIDEO PROIEKZIOA -
Herriko biztanleekin elkarrizketak

- MONOLOGOAK -
Zuhaitz Gurrutxaga
Mikel Pagadi

- BERTSOAK -
Sebastian Lizaso



**AZAROAK 12, OSTEGUNA,
19:00ean, MIKELASAGASTI AUDITORIOAN**

**GONBIDAPENAK LIBURUTEGIAN AZAROAREN 9tik AURRERA.
BAKOITZAK 2 GONBIDAPEN GEHIENEZ -16 URTETIK GORAKOENTZAT**



ERREZETA

Kalabaza bizkotxo

Osagaiak (4 pertsonentzat)

- Aza bat
- 200 g kalabaza* (azal eta hazi gabe)
- 200 g irin*
- 100 g oliba olio*
- 100 g esne* (behi edo arrozarena)
- 100 g kanazko azukre marroia
- 2 koilarakadatxo altxagarri hautsa
- 4 arrautza*
- Oliba olio birjina*, gatza*, piper hautsa* eta kurkuma hautsa
- Intxaur zurituak*, mahaspasak* eta kalabaza haziak

* Lehenetsi tokikoak eta ekologikoak diren lehengaiak




**BERTAKOA
BERTATIK**
BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HERRI BIZIAK

Errezeta

Kalabaza laukitxotan moztuko dugu eta zartagin batean berotzen jarriko dugu oliba olio koilarakada batekin. Gatz pixka bat, piper hautsa eta kurkuma hautsa (aukeran) gehituko diogu. Estalki batekin estali eta bertan utziko dugu sueztitzen 15-20 minutuz.

Turmix-etik pasatzeko ontzi batean arrautzak, olio eta esnea jarriko ditugu. Bertara botako dugu aurretik sueztutako kalabaza eta dena ondo txikituko dugu krema antzeko bat lortu arte.



Beste ontzi batean irina, azukrea eta altxagarria nahastuko ditugu eta bertara botako dugu aurretik lortutako kalabaza krema. Intxaur zurituak eta mahaspasak gehitu eta dena ondo ondo nahastuko dugu. Silikonazko molde indibidualetan hustu nahaskia eta gainetik kalabaza haziak apaindu. Aurretik berotutako labeetan sartu 170 ° C-tan 25-30 minutuz (molde handia bada 45-50 minutuz utzi).

UDALEKO KULTUR INFORMAZIOA JASO NAHI DUZU? E-MAILEZ EDO WHASAPPEZ?



Bidali e-maila (kultura@anoeta.eus)
edo whatsapp (688 601 679),
zure izen-abizenak adieraziz, eta hasiko gara
informazioa bidaltzen nahi duzun eran.



EMAN IZENA EUSKARALDIAN. AHOBIZI ALA BELARRIPREST?

AHOBIZI naiz

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dut uneoro. Lehen hitzak, beti, euskaraz izango dira, eta ulertzen duten bitartean, euskaraz jarraituko dut, nahiz eta haiek erdaraz egin.



BELARRIPREST naiz

Euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut, ulertzeko gai naizelako. Nik erabakiko dut euskaraz noiz eta norekin egin.

